

San Martin feriaren barruko barazki, fruta, gazta **eta gainontzeko elikagaien postuak adjudikatzeko oinarriak**

Eguna: 2021eko irailaren 11, larunbata

Feriaren kokalekua eta ordutegia:

- Kokalekua: Ibargarai kalea
- Ordutegia: 9:30-14:30

Feriaren ezaugarriak

Feriaren barruan barazki, fruta eta gazta lehiaketa egingo da eta baita baimendutako elikagaien salmenta ere.

Salmenta-postua jartzeko araudia

Postuen kokalekua eta ordutegia

Udalak postuak banatu eta antolatuko ditu. Udalak jarritako postua ustiatzeko baimena lortzen dutenek 2 metroko postu bana izango dute. Dena den, eskaeran postu gehiago eskatu ditzakete eta, postu libreak baleude eta, egoki irudituz gero, udalak postu handiagoak baimentzea erabaki ahal izango luke.

Dena den, eta kontuan izanik feriaren ezaugarrietako bat dela barazki, fruta eta gazta lehiaketa, lehiaketara aurkezten direnek lehentasuna izango dute postua adjudikatzeko orduan.

Udalak zehaztutako kokapena aldaezina izango da, eta udalarentzat erabat diskrezionala.

Gehieneko postuak

Gehienez 48 postu jarri ahal izango dira, honela banatuta:

1. Janari-produktuen erakusketa eta salmentarako postuak: Gehienez 46 postu

Produktu desberdinak izango direla bermatzeko, postu kopurua produktu motaren arabera banatuko da:

- Barazkiak eta frutak: 12 postu
- Kontserbak: 4 postu
- Eztia: 2 postu
- Gazta: 12 postu
- Ogiak eta gozogintza: 12 postu
- Urdaitegiko produktuak: 4 postu

2. Landare apaingarrien erakusketa eta salmentarako postuak: Gehienez 2 postu

San Martin ferian ez da artisau posturik jarriko.

Postuez gain, udalak baimendutako beste erabilera batzuk ere eman daitezke gune honetan.

Ordutegia:

Saltokiek eta saltzeko produktuek 9:30erako jarrita egon beharko dute. 07:00ak baino lehen ezingo da saltokirik muntatzen hasi, eta 14:30etik aurrera jaso beharko dira.

9:30 - 14:30 bitartean ezingo da karga/deskargarako ibilgailurik sartu feriaren gunean.

Eskabideak aurkezteko lekua eta modua:

Eskaerak egiteko derrigor oinarri hauei erantsitako inprimakia erabili beharko da. Inprimakia egoki **osatuta eta sinatuta** egon beharko da.

Inprimaki hori erabilgarri egongo da udalaren web-orrian: www.bergara.eus

Horrekin batera honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

Kasu guztietan:

- Eskaera egiten duen pertsonaren NANA
- Enpresaren IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea), egindako eskaeraren produktuen salmentari dagokiona.
- Iharduera Ekonomikoen Zergan altan emanda izatea.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasunean egunean daudela ziurtatzen duen agiria.
- Osasuneko erregistro-zenbakia edo osasun-baimena (giza kontsumorako elikagaien kasuan).
- Elikagaiak manipulatzeko txartela, edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratutako gabeko produktuen salmentaren kasuan. Bost urtetik goragoko dokumenturik ez da onartuko.
- Nekazaritzarako ustiategiaren txartela, hala badagokio.

Oharrak:

- Dokumentu guztiek pertsona edo enpresa beraren izenean egon behar dute.**
- Ez da tramitatuko dokumentazioa irakurtezina duen edo osatu gabe dagoen inolako eskaerarik.**
- Barazki eta fruta postuen kasuan eta gazta postuen kasuan, lehiaketan parte hartu nahi bada espreski adierazi behar da eskaeran; eta ez bada hori adierazi ulertuko da salmentarako bakarrik aurkeztu dutela eskaera.**

Dokumentazio guztia aurkeztea beharrezkoa izango da onartutakoen zerrendan sartzeko.

Eskaerak egin daitezke goian aipatutako dokumentazioarekin aurkeztuta:

- 1) Oinarri hauei erantsitako inprimakia bete eta helbide elektronikoa honetara bidalita: ferixabergara@bergara.eus.
- 2) Edo bestela, udaletxeko BAZera (Herritarren Arreta Zerbitzura) bertaratuta.

Eskaera egiteko epea: 2021ko uztailaren 15ean hasi eta uztailaren 25ean amaituko da.

Hautaketarako prozedura eta irizpideak

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, udalak onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda prestatuko du eta 2021ko uztailaren 28an web-orrian argitaratuko du, erreklamazioetarako edota falta den dokumentazioa aurkezteko 5 eguneko epea emanez. Erreklamazioak edota falta den dokumentazioa posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: ferixabergara@bergara.eus

Erreklamazioak edo aurkeztutako dokumentazio osagarria aztertu ondoren, udalak onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda prestatuko du eta web-orrian argitaratutako du abuztuaren 5ean.

Ferian parte hartzeko lehentasuna izango dute hurrenkera honetan:

1. Bergaran edo Debagoiengan egoitza duten barazki, fruta eta bertako elikagai ekoizleek.
2. Bergarako azokan larunbatetan parte hartzen duten ekoizleek.
3. Nekazaritza ekologikoaren bidez produktuak ekoizten dituztenek.
4. Gipuzkoako barazki, fruta eta bertako elikagai ekoizleek.

Eskaeren kopurua postu kopurua baino handiagoa bada, postuen adjudikazioa eta kokalekua zehazteko zozketa egingo da. Honen berri udaleko web orrian emango litzateke.

Postua eskuratzeko baldintzak bete, baina postua eskuratu ez dutenekin itxarote-zerrenda bat osatuko da.

Norbaitek postuari uko egin nahi badio, udalari posta elektronikoa bidez jakinarazi beharko dio (ferixabergara@bergara.eus helbidera mezua bidalita), gutxienez ferieguna baino 7 egun natural lehenago, eta udalak itxarote-zerrendan geratu denari adjudikatuko dio.

Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak:

Seinaleztatena eta dokumentazioa

- Salmenta-postuetako arduradunek ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dute emandako identifikazio-txartela.

- Udal langileek edo arduradunek eskatutako dokumentazioa derrigorrean aurkeztu beharko da.
- Salgai jarritako produktuen prezioak kartel batean jarriko dira, edonork ondo ikusteko moduko lekuan.
- Parte-hartzaileek haien ekoizpenen jatorria argi adierazi eta bermatu beharko da.
- Produktuekin zerikusia duten agiri guztiak Udal Ikuskatzaitzaren eskura egongo dira saltoki guztietan (osasun-erregistroa, etiketak eta produktuaren jatorria identifikatuko duten gainerako agiri guztiak). Agiri horiek ez badaude, identifikatu gabeko produktuak berehala kentzeko agindua eman ahal izango da eta/edo zigor bat jarri ahal izango da, osasun arloan.
- Jendaurrean jartzen diren testuen hizkuntza:
 - Udalaren hizkuntza-irizpideei jarraituz, jendaurrean jartzen diren kartelak (produktuen izenak eta bestelako informazioak) euskaraz egon beharko dira (edo, behar denean, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanda).
 - Testuak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, UEMARA jo daiteke (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea: 943 81 66 99 edo komunikazioa@uema.eus) edo baita Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura ere (euskara@bergara.eus), beti ere astebete aurretik.
 - Eta feria-egunean testuen hizkuntzaren jarraipena egingo da.

Produktuen gaineko informazioa

- Produktuaren kalitatearen erantzule izango dira une oro. Produktu horiek ezingo diete eragin inolako osasun edo segurtasun arriskurik kontsumitzen dituztenei, ez dute kalitatean ez kantitatean iruzurrik egingo, ez dira faltsifikatuta egongo, ezingo dira identifikatu gabe egon eta komertzializatzeko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.
- Temperatura hotzean eduki beharreko produktuak saltzen dituztenek derrigorrean izan behar dituzte hozkailuak, produktu guztiak bertan gorde ahal izateko.
- Ezingo da inongo produkturik komertzializatu, gaixotasunak sendatzeko balio duela edo ezaugarri terapeutikoak dituela esanez.
- Janari-produktuak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan-banan, bakoitzak bere ezaugarri bereziei ondo eusteko eta usainak, zapore arraroak eta kutsadura ekiditeko.
- Ezingo da janari-produkturik zoru gainean utzi (bestelako euskarririk gabe).
- Ekoizle bakoitzak bere ustiatzean edo baldintza sanitario egokiak betetzen dituen establezimendu batean sortu, elaboratu edota ontziratutako produktua bakarrik saldu ahal izango du. Saltzaileak berak lehengaia ekoizten ez badu, bakarrik emango zaio baimena establezimenduaren titularrak bada.
- Ekoizle bakoitza produktu mota batengatik aukeratuko da ferian parte hartzeko, eta produktu horixe baino ezingo du saldu. Izena emateko inprimakian zehaztutako produktuak bakarrik saldu ahal izango dira.

- Elikagaiak, eta batez ere urdaitegiko produktuak, ez dira jendearekin kontaktuan jarriko, eta ontziratatu gabeko produktuak ere ez, eta behar bezala babestuta eduki beharko dira, erakusleihoak edo antzekoak erabilia.
- Ontziratutako produktuek behar bezala etiketatuta egon beharko dute, etiketa eta kontraetiketa jarrita (beharrezkoa den kasuetan).
- Azokaren tarte osoan bete beharko dira adjudikazioa emateko ezarri diren baldintzak eta betebeharrak, baita eskumena duten udal arduradunek emandako jarraibideak ere.
- Operazioaren diru-kopurua 400 eurotik beherakoa bada, egindako salerosketaren frogagiri gisa derrigorrezkoa da bezeroei gutxienez faktura sinplifikatua ematea, eta hor agertu behar dira agiri-zenbakia, enpresaren izena, helbidea, xehetasuna, diru kopurua eta data. Kopurua 400 eurotik gorakoa bada, faktura arrunta eman beharko da.

Beste betebeharrak batzuek:

- Salmenta postuan, ezarritako ordutegian, titularrak egon beharko du –edo, hala badagokio, hark izendatutako pertsonak–, eta Gizarte Segurantzaren alta emanda izan beharko da/dira.
- Bakoitzak adjudikatutako lekua erabili ahal izango du bakarrik (beste lekurik ez).
- Merkataritza-jarduera gauzatzen duten bitartean, arlo horretan indarrean dagoen araudiak ezartzen duena bete beharko dute, batez ere ondoko gaiak dagokienean: osasun publikoa, merkataritzako jarduera, azokaren diziplina, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa, eta zerga-erregimena eta Gizarte Segurantzaren.
- Pisatu eta neurtzekoak diren produktuak saltzen dituzten postuetan arauzko baskula eta metroa eduki beharko dira.
- Azokak irauten duen artean derrigorrean bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Postuan dagoen pertsona garbi egon beharko da, baita aldean daraman arropak ere, eta jarduerarako behar dituen tresnak ere bai.
- Eskabidean azaldu eta egiaztatutako produktuak askotarikoak eta nahikoa izango direla bermatzea, saltzearen ondorioz postua hutsik gera ez dadin.
- Salmenta-postu guztietan erreklamazio-orriak jarriko dira herritarren eskura.
- Azokaren behar bezalako garapena aldatu edo eragotziko duen ekintzarik ez egitea.
- Antolatzaileek oinarriak betearazteko emandako jarraibideak bete beharko dira.
- Postuan dagoen pertsonak gel hidroalkoholikoa eta egunean indarrean dauden segurtasun neurri guztiak bete beharko ditu.

Begarako Udalak segurtasun neurriak eta egunean dagoen araudia errespetatzen direla bermatuko du:

- Feria gunearen espazioa mugatua egongo da.

- FERIA gunerako sarrera-irteerak seinaleztatuta egongo dira eta herritarrek seinaleztapena jarraitu beharko dute.
- Gel hidroalkoholikoa jarriko da sarreran.
- Produktuak saltzaileak bakarrik ukitu ahal izango ditu, saltzen diren arte.

Oharra

Covid-19aren ondorioz egoerak okerrera egingo balu eta horrelako feria egitea ezinezkoa balitz, feria bertan behera geratuko litzateke. Hori gertatuz gero, parte-hartzaileei mezu elektronikoz edo/eta telefonoz adieraziko zaie erabakia.

Udalak edo indarrean dagoen araudiak —segurtasun, higiene edo bestelako baldintzak betetzen ez direla ulertuta— feria bertan behera uztea erabakiko balu, ekoizleak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

BARAZKI eta FRUTA LEHIAKETARAKO ARAUDIA

Partehartzea: Izena eman dezakete nekazaritza ustiapenerako txartela dutenek.

Izen ematea eta dokumentazioa aurkeztea: oinarri orokorretan jasotako eran.

Ordutegia: goizeko 7:30etan hasiko dira salgaiak jartzen eta 9:30etarako prest izango dira. Ordu horretan pasatuko da epaimahaia. Eta postuak 14:30etik aurrera jasoko dira.

Salmenta: Epaimahaiaren erabakia jaso ondoren hasiko da salmenta, 10:30ak inguruan.

Dieta: Partehartzaileei 100 euroko dieta emango zaie, antolatzaileek erabakitako gutxieneko barazki edo fruta barietateak aurkeztuz gero.

- Postu bat baino gehiago jarriz gero; hau da, barazki eta fruta postuak jarriz gero, 100 euro jasoko ditu baserritarrak.

LEHIAKETA:

Sarituko diren salgaiak: Norberak landatutako fruta eta barazkiak izan beharko dira.

Sariak honako hauek izango dira:

Barazkiak	Fruta
1. 500€	500€
2. 450€	450€
3. 400€	400€

Sariak emateko orduan honako baldintza hauek hartuko dira kontuan: salgaien kalitatea, mota ezberdinetako salgaiak erakutsi edo saltzea, mota bakoitzeko aldaera edo barietate desberdinak erakutsi edo saltzea.

Dieta eta sariak transferentzia bidez ordainduko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ/IRPF) dagokiona kenduta.

Oharra

Covid-19aren ondorioz egoerak okerrera egingo balu eta horrelako ferria egitea ezinezkoa balitz, ferria bertan behera geratuko litzateke. Hori gertatuz gero, parte-hartzaileei mezu elektronikoz edo/eta telefonoz adieraziko zaie erabakia.

Udalak edo indarrean dagoen araudiak —segurtasun, higiene edo bestelako baldintzak betetzen ez direla ulertuta— ferria bertan behera uztea erabakiko balu, ekoizleak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

GAZTA LEHIAKETARAKO ARAUDIA

Partaideak:

- “**Artzai Gazta**” elkarteko edo/eta “**Idiazabal Gazta**” jatorri deiturako kide izan behar du.
- Partehartzaile bakoitzak gazta bat aurkeztu ahal izango du.

Izen ematea:

- Posible da lehiaketan parte hartzea salmenta posturik jarri gabe. Kasu honetan, “**Artzai Gazta**” elkarteko edo/eta “**Idiazabal Gazta**” jatorri izendapenaren bulegoan eman behar da izena.
- Salmentarako postua jarri nahi bada, oinarri orokorretan jasotako eran egin beharko da eskaera.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzailearen identifikazio agiria (NANa, AIZ, pasaporteak.)
- Enpresaren IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea).
- Iharduera Ekonomikoen Zergan altan emanda izatea.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasunean egunean daudela ziurtatzen duen agiria.
- Osasuneko erregistro-zenbakia edo osasun-baimena.
- Elikagaiak manipulatzeko txartela, edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratutako gabeko produktuen salmentaren kasuan.
- Nekazaritzarako ustategiaren txartela.

Ordutegia: Gaztak goizeko 9:00etatik 10:00ak bitartean aurkeztuko dira Bergarako Seminarioko patioan dagoen karpan, epaimahaia elkartu eta dastaketa egin ondoren epaia emateko.

Kartelen hizkuntza: Udalaren hizkuntza irizpideei jarraituz, jendaurrean jartzen diren kartelak (izenak eta bestelako informazioak) euskaraz egon beharko dira (edo behar denean euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanda).

Dietak: Gazta bakoitzak 30 euroko dieta izango du.

Sariak

Honako hauek izango dira sariak:

Gazta	
1	500€
2	450€
3	400€

Saria irabazleak edo berak izendatutako ordezkari batek jaso beharko du.

Dieta eta sariak transferentzia bidez ordainduko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ/IRPF) dagokiona kenduta.

Oharra:

Lehiaketan parte hartzeak ez du salmentarako postua eskuratzeko baimenik ematen. Salmentarako postua nahi bada, aurrez dagokion eskaera egin eta udalak postua adjudikatu beharra dago.

Covid-19aren ondorioz egoerak okerrera egingo balu eta horrelako feria egitea ezinezkoa balitz, feria bertan behera geratuko litzateke. Hori gertatuz gero, parte-hartzaileei mezu elektronikoz edo/eta telefonoz adieraziko zaie erabakia.

Udalak edo indarrean dagoen araudiak —segurtasun, higiene edo bestelako baldintzak betetzen ez direla ulertuta— feria bertan behera uztea erabakiko balu, ekoizleak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.